



AGINDUA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUARENA, TURISMO AKTIBOAREN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEN DUENA.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.36 artikulua araber, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, Konstituzioaren 148.1.18 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, turismoaren arloko eskumen esklusiboa.

Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-jarduera garatu behar den esparru juridiko orokorra ezarri du. Legearen 72. b) artikuluan ezartzen du interes turistikoko jardueratzat hartzen direla turismoa dinamizatzen laguntzen duten eta Euskadin turistaren mugimendua eta egonaldia errazten duten jarduerak, besteak beste, naturako kirol-jarduerak, hala nola turismo aktiboa eta abenturakoa.

Era berean, lege horren 74. artikulua ezartzen duenez, turismo-agintaritzaren zeregina izango da, Jaurlaritzako beste sail batzuekin batera, araudi espezifiko bat egitea eta abian jartzea, lege horren VI. tituluaren jasotako establezimendu edo sektoreentzat, hala nola turismo aktiboarentzat, edo beste batzuentzat, baldin eta erregulazio hori eskatzen badute eta Administrazioaren beste eremu batzuen erregulazio-estaldurarik ez badute.

Beraz, aurreikuspen horren araber, beharrezkoa da turismo aktiboa arautzea eta haren araubide juridikoa ezartzea, bai eta hura gauzatzeko eskatzen diren baldintzak ere..

Dekretu-proiektu honen xedea da turismo aktiboaren dekretua egitea eta onartzea, jarduera hori turismo-erabiltzailea eta zerbitzuaren kalitatea babesteko printzipioen araber arautzeko, eta jarduera hori egiten duten enpresei eta erabiltzaileei ahalik eta segurtasun juridiko handiena emateko.

Arauk arautuko du zer informazio eman behar zaien erabiltzaileei, eta zer eskubide eta betebeharrak dituzten. Era berean, betekizun batzuk ezarri behar dira, jarduera segurtasun-baldintza egokietan egingo dela bermatzeko. Horrekin, arauak esparru juridiko egokia ezarriko du, jarduera-multzo zabal bati lekua egingo diona.

Arauk eutsi egiten dio erantzukizunpeko adierazpenaren araubideari, jarduera hasteko, funtsezko aldaketak egiteko eta jarduera amaitzeko. Bestalde, eutsi egiten die barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentarauak eta Merkatu Batasuna Bermatzeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legeak ezarritako manuei, eta bermatu egiten du zerbitzuen zirkulazio askea eta establezimendua; enpresen lehiakortasunaren alde egiten du, lehiaren berdintasun-baldintzak bermatuz, eta ulertzen du, halaber, arautu gabeko interes





turistikoko jardueren eskaintzak ondorio kaltegarriak eragin ditzakeela sektorean; eta, azkenik, turismo aktiboko jardueren erabiltzailea babesten du, eta kalitatezko eskaintza ematen dio; kalitate horrek presentzia nabarmena du lehiakortasun-planetan eta Euskadiko turismoaren ikuspegiaren definizioan.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen xedea da xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzea, eta 12.1 artikuluan ezartzen du prozedura horiek dena delako gaian eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko direla. Era berean, lege horren 13.1 artikulua hasteko agindu horrek bete behar dituen baldintzak eta gutxieneko edukia ezartzen ditu.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Turismo aktiboaren dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera emateko agintzea. Prozedura horrek honako atal hauetan xedatutakoa bete beharko du:

a) Xedea eta helburua:

Proiektatutako xedapenaren xedea izango da Euskal Autonomia Erkidegoan turismo aktiboko jardueran aritzeko betekizunak ezartzea.

b) Bideragarritasun juridikoa eta materiala:

Euskal Autonomia Erkidegoak turismoaren arloan duen eskumen eskusiboa garatuz, Turismoaren 13/2016 Legeak, interes turistikoko jarduerak definitzen dituenean –honela definitzen ditu: Euskadin turismoa dinamizatzen laguntzen duten eta turistaren mugimendua eta egonaldia errazten duten jarduerak–, turismo aktiboaren figura sartzen du.

Era berean, 13/2016 Legeak betebeharrak hau ezartzen dio Euskadiko turismo-administrazioari: Jaurlearitzako beste sail batzuekin batera, araudi espezifikoko bat egitea eta abian jartzea indartu, sustatu eta, hala badagokio, erraztea, turismo-intereseko jardueratzat jotzen diren establezimendu edo sektoreentzat, baldin eta erregulazio hori eskatzen badute eta Administrazioaren beste eremu batzuen erregulazio-estaldurarik ez badute.

Arauk jarduera ekonomiko batean aritzeko baldintzei eragiten dienez, proiektuak errespetatu egiten du, 13/2016 Legeak diseinatutako sistemaren arabera –Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa, oinarritzat hartuta–, enpresa-askatasunaren printzipioa, kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko eskubidearekin, ingurumen-eskakizunekin eta erabiltzaileen eskubideen babesarekin bateragarriak diren terminoetan.

c) Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak:

Gaur egun, Euskadiko turismo-araudian ez dago Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 72.b) artikuluan jasotako turismo aktiboaren jarduera arautzen duen araurik, artikulua horrek egiten duen jardueraren aipamen hutsetik harago, eta Legearen 74. artikulua Euskadiko Turismo Administrazioari egiten dion eskaritik harago, erregulazio hori eskatzen duten eta Administrazioaren beste eremu batzuen erregulazio-estaldurarik ez duten jarduerak arautzeko.

Arau-ekimenak 13/2016 Legearen erregelamendu-garapenerako agindua betetzen du, ordura arte erregulazio espezifikorik ez zuen jarduera bati dagokionez. Horregatik, turismo-antolamenduaren ikuspegitik, izapidetzen ari den dekretuak ez dakar araurik indargabetzea edo aldatzea, baizik eta turismo aktiboaren jardueraren araubide juridikoaren osagarria.

Turismo aktiboko jarduerak planifikatzeko, antolatzeko, aholkatzeko, kontrolatzeko eta, hala badagokio, laguntzeko eginkizunak beren gain hartzen dituzten teknikariei eska dakizkiekeen betekizunei dagokienez, eskaintzen den jarduerari buruzko titulazio ofizialak ebaluatu beharko dira.

Azkenik, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuan jasotako xedapenak ere ebaluatu beharko dira, proiektatutako dekretua legegintza dekretu horretara egokitzen den ebaluatzeko.

d) Aurrekontuan izango duen eragina:

Xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontuetan izango duen eraginari dagokionez, xedapen horretatik eratorritako antolamendu-prozeduren kudeaketa administratiboak eragindako gastuak gaur egun dauden giza baliabideekin eta baliabide materialekin hartuko dira bere gain, eta, beraz, ez du eragin aipagarriarik izango aurrekontuetan.

Era berean, arau honek ez du zuzeneko aurrekontu-eraginik udalentsat eta beste administrazio publiko batzuentzat, zeinen eskumenei, zeharka bada ere, eragin baitiezaieke dekretuak.

Sektore pribatuari dagokionez, proiektuak oso eragin ekonomiko txikia du turismo aktiboko enpresetan, kontuan hartuta administrazioaren esku-hartzearen ondoriozko betebeharren jatorria uztailaren 28ko 13/2016 Legea bera dela, eta eskakizun horiek arau honetan garatzeak gutxieneko karga ekonomikoa dakarrela, eta dagokion txostenean baloratu beharko dela.

e) Gaiaren arabera egokitzen jotzen diren izapideak eta txostenak.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1 artikulua e) letran xedatutakoaren arabera, hasteko aginduak adieraziko ditu proposatutako araudiaren gaia eta edukia kontuan hartuta egokitzen jotzen diren izapideak eta txostenak. Adierazitakoa kontuan hartuta, jarraian zehazten dira

aurreikusitako dekretu-proiektua egiteko eta onartzeko behar diren izapideak eta txostenak:

1.- Hasteko agindua egoitza elektronikoaren iragarki-taulan eta Legesarean argitaratzea. Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da. Halaber, agindu hau Legesarea ezagutza partekatua lankidetzaren gunean txertatuko da.

2.- Dekretu-proiektua idaztea.

3.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren Agindua, Turismo Aktiboaren Dekretu-proiektuaren testua aldeztetik onartzeko.

4.- Entzunaldia eta jendaurreko informazioa.

Behin testu arauemailea aldeztetik onartuta, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egingo da. Izapide horren bidez, herritarrek parte hartzeko eskakizuna beteko da.

5.- Generoaren arabeko eraginari buruzko txostena.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren arabeko eraginari buruzko txostena idatziko da.

Arauk generoaren ikuspegitik garrantzirik ez duenez, emakumeen eta gizonen egoeran eragin txikia duelako, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartutako genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko Jarraibideetako Lehen Jarraibidearen 2.a) apartatuan xedatutakoaren arabera, izapideak egiten dituen Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak txosten bat egingo du garrantzirik eza behar bezala justifikatzeko, aipatutako jarraibideetako II. eranskinean aurreikusitako baldintzetan, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, era berean, 10 egun balioduneko epean, egiaztapen-txostena egin beharko du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 21. artikuluekin bat etorriz.

6.- Arau-eragina aztertzeke memoria.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikulua ezartzen duenez, espedientea izapidetzeko eskumena duen organoak arau-eragina aztertzeke memoria bat egingo du nahitaez, aipatutako xedapenean aurreikusitako baldintzetan eta edukiarekin.

7.- Txosten juridikoa.

Beharrezkotzat jotzen da txosten juridiko bat egitea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

8.- Memoria ekonomikoa.

Memoria ekonomiko bat egingo da, aurreikusitako eragin ekonomikoa zehazteko.

9.- Enpresan duen eraginari buruzko txostena.

Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, txosten hau egin behar da.

10.- Nahitaezko txostenak eta irizpenak.

Funtsezkoak ez diren txosten hauek eskatuko dira:

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egiaztapen-txostena.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenak, 2. artikuluan agindutakoari jarraituz, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzekoa.
- Landaberriren txostena,
Landa Ingurunearen Garapenerako 10/1998 Legearen 10.b) artikulua arabera, Landaberriri dagokio landa-eremuetan eragin nabarmena duten dekretu-proiektuei buruzko txostena egitea, aldeztatik eta nahitaez, bai landa-eremuetako jarduera ekonomikoari, zerbitzuei eta kultura-jarduerari buruzkoak direlako, bai garrantzi handiko emaitzak dituztelako; horrela, jarduera eta zerbitzu horien etorkizuneko bideragarritasuna baldintzatuko da, aipatutako legeak ezarritako landa-garapenerako politikaren helburuei dagokienez, eta organoari berari dagokio proiektu horien eragin-maila ebaluatzea, bere txostenaren mende jarri behar diren zehazte aldera; beraz, zuhurtasun-printzipioari jarraituz, txostena eskatuko zaio.
- Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua erakunde autonomoaren txostena.
Instituto hori sortzen duen 9/2007 Legearen 4.1 o) artikulua arabera, nahitaezko txostena eskatuko zaio, proiektuak kontsumitzaile eta erabiltzaileei eragiten dielako.
- Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordeari kontsulta.
Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua onartzen duen 6/2003 Legearen 36 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, kontsulta egitea nahitaezkoa da, izapidetzen ari den arau-proiektuak gai horri eragiten baitio.
- Proiektua Euskadiko Turismo Mahaia helaraztea.
Euskadiko Turismo Mahaia sortzen duen 5/2015 Dekretuaren 2.c) artikulua aplikatuz, kontsulta-organo horri dagokio turismoaren arloko arau-proiektu berriak eztabaidatu eta aztertzea.
- Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena.
Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legearen 3.5 artikulua arabera eskatuko da txostena, artikulua horrek xedatzen baitu gai horri eragiten dioten proiektuetan nahitaezko irizpena eman behar dela.

16. artikuluan xedatutakoaren arabera, funtsezkoak ez diren txosten horiek guztiak aldi berean egingo dira, hilabeteko epe komunean, aldez aurreko onarpena duen xedapenaren testua Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoa argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

10.- Nahitaezko txosten eta irizpen funtsezkoak.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 19. artikulua xedatzen duenez, espedientea aurreko artikuluetan aurreikusitako izapideen arabera osatu ondoren, honako txosten hauek eskatu eta bete beharko dira:

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena.

Organo hori arautzen duen 8/2012 Legearen 3.1.b) artikulua arabera, txostena nahitaezkoa da, dekretu-proiektua politika ekonomiko eta sozialarekin lotuta dagoela iritzita.

Txosten hori proiektua onartu aurreko unean eskatuko da, baina ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatu aurretik.

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena. Txostena nahitaezkoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko 14/1994 Legean (25. artikulua eta hurrengoak) eta eremu horretako barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen 464/1995 Dekretuan (41. artikulua eta hurrengoak) xedatutakoa aplikatuz.

11.- Azken espedientea eta prozeduraren memoria laburra.

Azken espedientea 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan xedatutakoaren arabera osatuko da. Era berean, prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko da, 24. artikulua 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

12.- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena eta Eusko Legebiltzarrerara bidaltzea. Espedientea erabat izapidetu ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatuko da, eta dokumentazio bera bidaliko da Eusko Legebiltzarrerara, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak eskatutakoarekin bat etorritik.

13.- Gardentasuna.

Dekretu-proiektua egiteko prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia Legegunea euskal araudiaren atarian argitaratu behar da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

14.- Gobernu Kontseiluak onartzea.

Egiteko prozedura amaituta, Gobernu Kontseiluak behin betiko onartu beharko du dekretu-proiektua, 6/2022 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

f) Itzulpen edo idazketa elebidunerako teknika.

Dekretu-proiektua Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian aurreikusitakoaren arabera idatzi beharko da. Erabaki horren bidez, lege, legegintza-

dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak onartzen dira. Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) egingo du itzulpena, 6/2022 Legearen 27.3 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen itzulpengintzako zeharkako zerbitzuen zentralizazioa zehazten duen apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

g) Prozedura Tramitaguneren bidez izapidetzea.

“Tramitagune” izeneko aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da prozedura, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian (xedapen orokorrak egiteko prozedurako izapidetze-jarraibideak onartzen dituen) eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakian (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren izapidetze elektronikorako jarraibideak onartzen dituen) xedatutakoari jarraikiz.

Bigarrena.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuaren 8.1.a) artikuluen arabera, Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzako Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza izendatzea prozedura izapidetzeko organo arduradun.

Hirugarrena.- Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Legesarea lankidetzaren jakinaraztean, 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan eta xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen,

JAVIER HURTADO DOMINGUEZ
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUA

